

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

96

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 28koa, Kulturako sailburuordearena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerentzako 2017. urtean emandako diru-laguntzen berri ematen duena.

2016ko abenduaren 30ean argitaratu zen EHAA 2016ko abenduaren 22ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerak 2017. urtean garatzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzen duena.

2016ko abenduaren 22ko Aginduaren 12.1 artikulua dioenez, Kulturako sailburuordeak emandako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, hartara eragotzi gabe onuradun gertatzen direnei esleipen-ebazpenaren banakako jakinarazpena egitea.

Horiek horrela izanda, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2016ko abenduaren 22ko Aginduren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta horien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 28a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2018ko urtarrilaren 9a, asteartea

ERANSKINA

Antzerkiko profesionalen prestakuntza integrala lortzera zuzendutako ikastaroak antolatzen dituzten egitarauentzako diru-laguntza eman zaienen zerrenda

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza
Anima Eskola, S.L.	Anima	4.000
Asociacion Taller de Artes Escenicas T.A.E.	TAE Donostia	14.200
Pedagogía del Arte, S.L.L.	ARTEBI	3.000
Porpol, S. Coop	TAE de Vitoria-Gasteiz	25.000
Te Atrako Teatro de Barakaldo	Bai, Bizkaiko Antzerki Ikastegia	13.800
Utopian Getxoko Antzerki Eskola Koop. Elk. Txikia	Utopian	23.000

Antzerkiko profesionalen prestakuntzarekin lotutako arlo zehatzetako prestakuntza-jarduerentzako diru-laguntza eman zaienen zerrenda

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza
Artedrama, S.L.	ADEL	1.000
Unima Euskal Herria	Escuela de Otoño	4.000